# LLÁMANOS JÓVENES

## ELKARBIZITZARAKO
LEHEN URRATSA

#OztoporikGabeBizi



HARRESIAK APURTUZ
Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKE-en koordinakundea
Coordinadora de ONG de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes

## Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak

### Harresiak Apurtuz elkarteak gazte guztien behar pertsonalak, profesionalak eta prestakuntzakoak asebeteko dituzten politika publiko inklusiboak eskatzen ditu

COVID-19aren krisiak esku-hartzearekin lotutako egoera konplexua sortu du eta administrazio malguagoa aldarrikatzea inoiz baino beharrezkoagoa da.

Erakundeen erantzukizun partekatua eskatzen du erakundeak, eskumen arloko alderdietatik harago joanda, eta elkarrekin bideratu beharreko ekintza-plana proposatzen du gizarte eta hezkuntza arloko laguntza integrala errazteko.

## HARRESIAK APURTUZ

### 2020KO ABENDUA

COVID-19aren krisiak orain arte inoiz ezagutu ez dugun esku-hartze egoera eragin du. Orain arte aldarrikatu izan ditugun gai askok beste ñabardura batzuk jaso dituzte eta berriak ere azaldu dira. Gizarte-erakundeek bakarrik dauden gazteekin egiten duten esku-hartze lanaren baitan sumatu dutenez, oro har, zerbitzu eta baliabide jakin batzuetarako sarbidea zaildu egin da. Salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, administrazioko izapidetzeak oztopatu egin dituzte eta hori, biztanleria osoan eragina duen arren, are larriagoa da egoera ahulenean dauden pertsonen kasuan.

Horren ondorioz, sarerik eta ostaturik ez duten gazte asko zaurgarritasun-egoera oso larrian geratu dira, eta ezin dute beren adinaren arabera beharko luketen gizarte eta hezkuntza arloko laguntzarik izan. Harresiak Apurtuzeko Gazteen Batzordeak urteak daramatza kolektibo horren eskubideak defendatzeko lanean eta bizi dituzten eta haien eskubide oinarrizkoenetan eragina duten eta zaindu beharko liratekeen egoera ugariak bistaratu dituzte.

Landutako profilak edozein izanda ere, detektatutako arazo larrienekin testuinguru komuna eraiki daiteke. Ezin dugu ahaztu nerabezaroaren erdi-erdian bi egoera konplexuri aurre egin behar dieten neska-mutilak direla: bakarrik egoteak eragiten dieten mina eta helduarorako beren burua prestatzeko gai izatearen eskakizuna (eta ez beti baliabideak eskuragarri izanda).

Lehenengo eta behin, eta **premia oinarrizkoenekin** lotuta, gazte horietako asko kalean bizi dira. Horrek berez

## Jóvenes extranjeros/as no acompañados/as

### Harresiak Apurtuz demanda unas políticas públicas inclusivas que atiendan a las necesidades personales, formativas y profesionales de todos/as los/as jóvenes

La crisis de la COVID19 ha generado un escenario de intervención complejo y la reivindicación de una administración más flexible se hace más necesaria que nunca

Apela a la responsabilidad compartida de las instituciones, más allá de sus ámbitos competenciales, y propone un plan de acción conjunto para facilitar un acompañamiento socioeducativo integral

## HARRESIAK APURTUZ

### DICIEMBRE DE 2020

La crisis de la COVID19 ha generado un escenario de intervención nunca visto hasta el momento. Muchas de las cuestiones que se venían reivindicando han tomado otros matices y han aparecido algunas nuevas. Las entidades sociales, en su trabajo de intervención con jóvenes no acompañados/as, perciben que, de manera general, se ha complejizado el acceso a determinados servicios y recursos. Salvo unas pocas excepciones, los trámites administrativos están siendo obstaculizados cuestión que, aunque afecta a toda la población, incide con gravedad en las personas más vulnerables.

Este escenario deja en una situación de extrema vulnerabilidad a muchos/as jóvenes que no disponen de una red ni de alojamiento y que no pueden tener el acompañamiento socioeducativo que precisan a su edad. La Comisión de Jóvenes de Harresiak Apurtuz, que lleva años trabajando en la defensa de los derechos de este colectivo, evidencia las diferentes situaciones que viven y que impactan contra sus derechos más básicos que, por encima de todo, se deberían salvaguardar.

Independientemente de los diferentes perfiles con los que se trabaja, es posible construir un marco común con las problemáticas más graves detectadas. No se puede olvidar que son chicos y chicas que deben lidiar con dos escenarios complejos en plena adolescencia: el dolor que ocasiona estar solo/a y la exigencia, no siempre con recursos a su disposición, de que sean capaces de prepararse ya para la vida adulta.

En primer lugar, y en relación a las **necesidades más**

zaila den narriadura fisiko eta psikologikoa eragiten du eta egoera oso larriak eta zailak eragin ditzake. Haietako asko, gainera, bakarrik daude eta babes-sare informalak dituzte. Osasun-sistemarako sarbideari dagokionez, DAST dokumentuak (aldi baterako osasun-laguntza izateko agiria) osasun-sistemara sarbidea eskaintzen die erroldatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Hala eta guztiz ere, eta behin-behineko tresna den edo iraungo duen zerbait den jakin gabe, aldarrikapen nagusia doakoa, kalitatezkoa eta unibertsala den osasun-sistema eskatzea litzateke. Bestalde, kontuan izan behar dira baliabide ekonomikorik ez dutelako botika-gastuak estali ezin dituzten pertsonak. Alde batetik, **prestakuntza mailan,** hizkuntzarekin lotutako arazoez eta erroldan ez egoteaz gain, tituluak baliozkotzeko dituzten arazoek haien hezkuntza-garapenean eta, horrenbestez, bilakaera profesionalean eta bizitzakoan dute eragina. Lanbideko ikastaroak egiten ez dituzten eta erroldarik ez dutenek ezin dute titulu ofizialik lortu. Amaitzeko, eta **dokumentazioari dagokionez**, gazte asko administrazioko gurpil etsigarrian sartuta geratzen dira eta oso zaila izaten da hortik ateratzea. Erroldak sistemara sartzeko ate gisa funtzionatzen duela ikusita, halakorik ez izateak eragin oso larria izaten du pertsonengan.

Eskaera oso zehatza da: sistemara sartzeko eskakizunak malgutzea ezinbestekoa da gazteek beren garapen-prozesuetan aurrera egin dezaten. Identifikatutako egoera konplexuago batzuetatik eratorri dira gizarte eta hezkuntza arloko laguntza integrala erraztu eta baldintzak hobetuko lituzketen ekintza-proposamenak. Besteak beste:

- **Kontsuletxeetan pasaporteak entregatzeko garaian epeak gutxitzea.** Kontsuletxeetako atzerapenak direla eta, pertsona askok baliozko identifikazio-dokumenturik izango ez dutela kontuan hartuta, garrantzitsua litzateke ongizate sozialeko sistemara sarbidea izateko garaian malgutzea pertsonek laguntzak izapidetzeko edo erroldatzeko aukera izan dezaten, nahiz eta “behin-behinekoz” izan.

- **Errolda-eskaerei modu eragingarrian erantzutea** Lanbideko prestakuntza-prozesuetara eta/edo berritzeetara ez ezik, prozesuetarako oinarrizkoa edo interesekoa den edozein zerbitzu edo bitartekotara. Erroldak finkatzen du nor den zuzenbideko hiritarra, eta nor ez.

- **Kolektiboaren eskaerak eta berezitasunak inklusio-politiken erdigunean kokatu ahal izateko gizarteratze-politiken hedapen erreala eta eragingarria:** beharrak estaltzea eta baliabideak eskaintzea lehentasun bihur daitezen.

- **Udaleko Larrialdi Zerbitzuaren baitan arreta integrala** gazte guztientzako erreferente gisa, haien administrazio-egoera edozein izanda ere.

**básicas**, muchos/as de estos/as jóvenes viven en la calle. Esto supone un deterioro físico y psicológico, ya difícil per se, del que pueden derivarse situaciones muy graves y complicadas. Muchos/as están solos/as o con redes de apoyo informal. Respecto al **acceso al sistema de salud**, el documento DAST permite el acceso al sistema sanitario a las personas que tienen dificultades para empadronarse. Aún así, y sin conocer si se trata de una herramienta temporal o algo que se mantendrá en el tiempo, la reivindicación pasa por un sistema de salud universal, gratuito y de calidad. Es necesario, por otra parte, tener en cuenta a aquellas personas no pueden cubrir los gastos de medicamentos por falta de recursos económicos. Por otro lado, a **nivel formativo**, además de las dificultades con el idioma, la carencia de padrón y los problemas para convalidar títulos marcan su desarrollo educativo y, como consecuencia, el profesional y el vital. Quienes forman parte de cursos de Lanbide y no cuentan con padrón, no pueden obtener un título oficial. Por último, y **en relación a la documentación**, muchos/as de los/as jóvenes se ven inmersos en una rueda administrativa frustrante de la que es muy complicado salir. Teniendo en cuenta que el padrón funciona como la puerta de entrada al sistema, las consecuencias de no tenerlo impactan de manera muy grave en las personas.

Existe una demanda muy concreta: la flexibilización de los requisitos de acceso al sistema es fundamental para que los/as jóvenes puedan caminar en sus procesos de desarrollo. De algunas de las situaciones más complejas identificadas se derivan propuestas de acción que mejorarían sus condiciones y facilitarían un acompañamiento socioeducativo integral. Entre otras:

- **Reducción de los plazos de entrega de los pasaportes en los Consulados.** Teniendo en cuenta que muchas personas no van a disponer de un documento identificativo válido por los retrasos en los Consulados, sería importante una flexibilización en el acceso al sistema de bienestar social para que las personas puedan empadronarse o tramitar ayudas, aunque fuera “de manera temporal”.

- **Respuesta efectiva a las solicitudes de padrón** para acceder correctamente, no sólo a los procesos formativos de Lanbide y/o a las renovaciones, sino a cualquier servicio o recurso de interés o fundamental para los procesos. El padrón marca quién es ciudadano/a de derecho y quién no.

- **Despliegue real y efectivo de políticas de inclusión que sitúen las demandas y especificidades del colectivo en el centro de las mismas:** cobertura de necesidades y dotación de recursos para que sea una prioridad.

- **Atención integral en el marco del Servicio de Urgencias Municipales** como referente para todos/as los/as jóvenes, con independencia de su situación administrativa.

Pandemiaz harago joanda, kolektibo horren egoera desberdinek agerian uzten dute politika publikoek hiritartasun inklusiboaren kontzeptua errazten lagundu beharko luketela eta pertsona guztien eskubideek erdigunean egon beharko luketela. COVID-19ak eragindako krisiak horiek larriagotu egin ditu. Erakunde eta sailen arteko elkarrizketa aktibatuta gazteen beharretara egokitzeko, ikuspegi hori legeztatu eta bermatu ahal izateko beharrezkoa da erantzunkidetasuneko lana. Horregatik, inoiz baino premiazkoagoa da administrazioek (autonomia mailakoa, Aldundikoa eta tokikoa) partekatutako erantzunkidetasuna oinarri hartuta eta haien eskumen arloez harago joanda lan egitea, gazteen (azken finean, gaur egun, errealitate saihetsezina osatzen dute) eskubideak defenditzeko helburuarekin. Ezinbestekoa da elkarbizitza eta aniztasuna lan-ildo guztietan zeharka txertatzea bizitzarako behin betiko bidean laguntza emateko: errolda, etxebizitza, hezkuntza, enplegua, aisialdirako sarbidea.

Gazte horietako askok, haien prozesuen baitan, maiz, haien bizileku-baimena amaitzen dela, edo prestakuntza-ibilbidea edo enplegua lortzeko zailtasunak topatzen dituztela ikusten dute, askotan, horren aurka egiteko aukerarik izan gabe. Horrek guztiak itoaldia eta frustrazioa eragiten du erregularizatu gabe geratzeagatik eta horrek oso ondorio larriak eragiten ditu zuzenean: prestakuntza eta beste gune batzuk uzten joaten dira. Azken finean, haien bizitza-proiektua uzten joaten dira. Gizarte-erakundeentzat oso zaila izaten da amaierarik ez duen ziklo hori lantzea eta hezitzaileek, langileek edo orientatzaileek, kasu gehienetan, pertsonaren administrazio-egoeraren arabera esku hartzen dute, eta ez haien testuinguruak, zailtasunak, beharrak edo gaitasunak kontuan hartuta.

Hitz gutxitan esanda, irtenbide globalena litzateke erakunde ugarien baitan sortzen diren politika publikoek kolektibo honek dituen beharrak eta testuinguruak erdigunean jartzea. Gazteek prozesu integralak eta laguntza eragingarriko prozesuak behar dituzte helduarora igarotzeko prozesuari aurre egiteko eskubideak betetzen direla bermatzetik, babestetik eta bizitza duina izatetik abiatuta. Ez litzateke beste era batera ulergarria izango. Harresiak Apurtuz elkartea osatzen dugunok eta hori osatzen duten hirurogei erakunde baino gehiagoren errealitate sozialaren ezagutzarekin, gazteen gizarteratze-prozesuak positiboak direla berma dezakegu oinarrizko beharrak estaltzen direnean: bizitokia eta elikagaiak, hezkuntza, maitasuna, arreta medikoa, aisialdia eta abarrak. Amaitzeko, erakundeekin batera modu koordinatuan lan egiteko lagundu nahi dugu errealitate horien aurrean benetakoa eta eragingarria den erantzuna bermatu ahal izateko.

Más allá de la pandemia, las diversas situaciones de este colectivo evidencian que las políticas públicas deberían velar por favorecer un concepto de ciudadanía inclusiva en el que los derechos de todas las personas se sitúen en el centro. La crisis de la COVID19 no ha hecho otra cosa que agravarlas. Se necesita una labor de corresponsabilidad para adaptarlas a las necesidades de los/as jóvenes a través de la activación de un diálogo interinstitucional e interdepartamental que legitime y avale este enfoque. Es por ello que resulta más urgente que nunca que las diferentes administraciones, autonómica, foral y local, trabajen en clave de responsabilidad compartida y más allá de sus ámbitos competenciales en la defensa de los derechos de los/as jóvenes, que representan a día de hoy una realidad ineludible. Es imprescindible introducir la convivencia y la diversidad de manera transversal en todas sus líneas de trabajo: padrón, vivienda, educación, empleo, acceso al ocio y tiempo libre...para un acompañamiento en el tránsito definitivo hacia una vida plena.

Muchos/as de estos/as jóvenes dentro de sus diversos procesos asisten, en muchas ocasiones sin nada que poder hacer, al fin del permiso de residencia, a la dificultad para lograr un itinerario formativo o un empleo. Esto genera mucha angustia y frustración por quedarse sin regularizar y la consecuencia directa es enormemente grave: van abandonando la formación y otros espacios. Van abandonando, en definitiva, su proyecto de vida. Resulta muy complejo para las entidades sociales abordar este ciclo que nunca acaba y se da la circunstancia de que educadores/as, trabajadores/as u orientadores/as intervienen, en la mayoría de los casos, en base a la situación administrativa de la persona y no en base a sus contextos, dificultades, necesidades o capacidades.

En definitiva, la solución más global pasa porque las políticas públicas que se generen en el marco de las diferentes instituciones pongan en el centro las necesidades y los contextos diversos de este colectivo. Los/as jóvenes necesitan de procesos integrales y de acompañamiento efectivos para hacer frente al paso a la edad adulta desde la protección, la garantía de cumplimiento de sus derechos y de una vida digna. No cabe entenderlo de otra manera. Desde Harresiak Apurtuz, y con el conocimiento de la realidad social de las más de sesenta entidades que la conforman, podemos asegurar que cuando se cubren las necesidades básicas como tener techo y alimento, educación, cariño, atención médica, ocio...los procesos de inclusión de los/as jóvenes son positivos. Por último, tendemos la mano a colaborar de forma coordinada con las diferentes instituciones a fin de garantizar una respuesta real y efectiva antes estas realidades.